

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure produktua (larrialdietarako eskumuturra), merkatu masibo batera bideratua dago, hau da, bezeroak edozein adinekoak edo sexukoak izan daitezke, eskumuturra edozein pertsonara egokitu daitekeelako. Produktua berdina da pertsona guztientzat, nahiz eta bezeroek gauza desberdinetarako nahi eskumuturra.

Adinari dagokionez:

- **Umeentzat:** Umeak oso gazteak direnez, Umeek eskuturra badaramate galtzen direnean botoiari sakatuz gurasoek emandako telefono zenbakiak mezu bat jasoko du umearen kokapen zehatza adieraziz.
- **Gazteentzat:** Askotan gauean ateratzen direnean beldurra izan dezakete gero beranduago etxera heltzeko. Horregatik gure eskumuturrarekin zerbait gertatzen bazaie askoz errazagoa suertatuko zaie poliziari deitzea.
- **Agureentzat:** Gizarteko pertsona helduenak gaixotasun gehiago jasaten dituztenak dira. Eskumuturrari esker, etxetik atera ahal dira eta arazoren bat badute, botoiaren bidez ambulantiari dei diezaiekete.

Gure produktua goian aipatutako jende guztiarentzat baldin bada ere, zerbitzu hau zenbait kasu espezifikoetara ere bideratua dago. Adibidez:

- **Emakumeentzat:** Ideia aurrera eramateko, emakumeen egoeran oinarritu ginen batez ere. Gaur egungo gizartean zoritxarrez oraindik nabariak dira emakumeen kontrako erasoak. Horren kontra, gure eskumuturra, emakume zenbaki handienera zabaltzea nahi genuke, horrela, kaletik bakarrik doazenean botoiari sakatuz poliziak deia jasoko du eta emakume horren lokalizazio zehatza jasoko du bertara polizia bat bidali dezan.
- **Gaixoentzat:** Gure enpresak, jendearen gaixotasunez ere arduratzen da, bai gaixotasun fisikoak bai psikologikoak. Esaterako, gaixotasun fisikoak dituzten pertsonak (adibidez bihotzekoak jasaten dituztenak) azkarrago lortuko dute

laguntza eskumuturrari esker. Gaixotasun psikologiak dituzten pertsonak (Adibidez, antsietatea duten pertsonak) ez dituzte kontuan hartzen askotan produktuak egiterakoan beste enpresek, eta horregatik, gu gaixotasun horiek jasaten dituzten pertsonei laguntza eskaini nahi diegu. Horrela, eskumuturra erabili ahal dute krisiren bat izaten badute.

Secureband eskumuturra ez da bakarrik pertsona aberatsentzat, prezioa ez da bereziki garestia (60€ inguru), beraz ekonomia maila guztietako pertsonek erosi ahal izango dute. Honi esker, merkatu zabalago bati saldu ahal dizkiogu gure eskumuturrak. Gure segmentazioa ondo zehaztuta baldin badaukagu, marketing estrategia espezifikoak egin ahal izango ditugu, gainera gure produktuaren erabilera ondo zehaztuz gero gure merkatua zabal dezakegu.